

Galdera

- *lanak egokia izan beharko luke / lana egokia izan beharko litzateke*
 - *gurasoen zereginak laguntza eskaintzea izan beharko luke / gurasoen zeregina laguntza eskaintzea izan beharko litzateke*
- Zein da zuzena?

Erantzuna

Biak erabiltzen dira.

1/ Euskaltzaindiak lehena hobesten du, baina ez du bigarrena gaitzesten. Edonola ere, ezin da firin-faran ibili, eta orain *izan behar dut* erabili eta gero *izan behar naiz*, koherentziagatik; bata edo bestea, biak ez.

— *Behar izan* aditzarekin batera doan beste aditza NOR-NORK sailekoa denean, ez dago zalantzarik, inperzonal eta pasiboa ez bada, *edun* aditz laguntzailea erabiltzen da:

- *Auto berria erosi behar **dute**. / Auto berriak erosi behar **dituzte**.*
- *Lehenbailehen aldatu behar **ditugu** ohiturak, bestela...*
- *Biharko konpondu behar **nioke** ordenagailua.*

— Aditza NOR sailekoa denean, bi jokabide daude. Hedatuena *edun* aditza erabiltzekoa da, baina *izan* laguntzailea ere erabili izan da eta erabiltzen da:

- *Lanak egokia izan beharko **luke**. / Lana egokia izan beharko **litzateke**.*
- *Gurasoen zereginak laguntza eskaintzea izan beharko **luke**. / Gurasoen zeregina... **litzateke**.*

— Auzi honi buruz, Euskaltzaindiak *edun* aditz laguntzailea erabiltzea gomendatzen du ([113. araua](#)), aurreko aditza *du* zein *da* izan; beraz, hauek hobesten egiten ditu:

- *Lanak egokia izan beharko **luke***
- *Gurasoen zereginak laguntza eskaintzea izan beharko **luke**.*

— Salbuespen gisa, NOR-NORI saileko aditzekin *izan* laguntzailea erabiltzen da:

- *Daraman zama lurrera erori behar **zaio**.*

— Lerro hauetan *edun* (*dut, luke...*) eta *izan* (*naiz, litzateke...*) aditz laguntzaileei buruz esandakoek berdin balio dute *ezan* (*dezadan...*) eta *edin* (*nadin...*) aditz laguntzaileentzat ere.

2/ Ikus Euskaltzaindiaren 113 araua: [Behar izan aditzaren jokabidea aditz iragangaitzekin](#)
Hemen PDF formatuan: https://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0113.pdf

Hau da laburpena:

1. **Behar izan** aditza aditz laguntzaile iragankor gisa jokatuko da, ondoan agertzen den aditz osagarria edozein motatakoa delarik, iragangaitza denean ere bai:

- Lan egin behar dugu*
- Liburua ekarri behar zenidan*
- Etxera joan behar dut*

- **du** aditza + **behar** ==> [aditza] + **behar** + **du** saileko aditz laguntzailea
- **da** aditza + **behar** ==> [aditza] + **behar** + **du** saileko aditz laguntzailea

2. Halere, lehen puntuan esana ez da beteko **behar izan** aditza, datibodun aditz iragangaitz batekin agertzen denean. Orduan **izan** laguntzailearen **zaio** saileko formak erabiliko dira beti:

- Bihar mintzatu beharko natzaizu gai horretaz*
- Azkeneko gauza guztiak ahaztu behar zaizkizu*

- **zaio** aditza + **behar** ==> [aditza] + **behar** + **zaio** saileko aditz laguntzailea

3. Bestalde, zenbait euskalkitan, Iparraldekoetan batez ere, **behar izan** aditzak **izan** laguntzailea har dezake aditz iragangaitzekin:

- Joan behar naiz*
- Ez zara ikaratu behar*

Jokabide hau ere ez da gaitzesten:

- **da** aditza + **behar** ==> [aditza] + **behar** + **da** saileko aditz laguntzailea.

3/ Kontsulta honen antzekoak izan ditugu lehenago ere; hona hemen horietako bi:

[behar izan \(23729\) - IRALE kontsulta-zerbitzua](#)

[joan behar dut / joan behar naiz – IRALE kontsulta-zerbitzua](#) (60. or.)